

BALIO PROPOSAMENA

Zer behar edo arazo konpontzen duzue?

Gazteek, festa giroan edo aisialdian, dibertitzen lagunduko dieten apaingarriak (betaurrekoak, kapelak, eraztunak, pultserak, galtzontziloak...) sortzen ditugu. Hauek, dibertigarriak direnez, **dibertsioa bermatzen lagunduko diete.**



Zerk bereizten zaitu eta, beraz, zergaitik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Gaur egun, merkatuan gazteen beharrei ez zaie erantzuten, eta beraz, ez dira hauentzako produktuak saltzen. Ondorioz, gure produktuek gure beharrei erantzuten dietenez, bezeroa gure produktuak erosteko prest egongo da.

Gure produktuen ezaugarriak:

→ Gure enpresa kualitatiboa denez, kalitatea eta diseinuarengatik nabarmenduko gara.

Gure bereizgarritasunak:

→ Berritasuna: azken aldian antzeman da, gazteok festetan erabiltzen ditugun objektuak eskuratzeko zailtasuna dagoela, hori errazteko gure produktuak eskuragarri izango dituzte, baita ere ideia berri bat da gazteen beharrei erantzuten diena.

→ Pertsonalizazioa: gure produktuak bezeroen behar eta nahietara egokituko dira. Horretarako, sortuko dugun web orrian, hainbat kolore, ezaugarri, forma etab. direla eta, beraien nahiak adierazteko aukera izango dute, horrela produktuek pertsonalizazio bakar eta berezia izango dute.

→ Diseinua: diseinu ezberdinetako produktuak izango ditugu ahalik eta aukera zabalena ahalbidetzeko, horrela bezeroek nahi duten produktura gehien hurbiltzeko.

→ Marka: Inpernahitz markako produktuak izango dira gehien bat baina aukerak zabaltzeko beste markaren bat sartuko genuke.

→ Prezioa: gazteek gaur egun ez dute baliabide handirik diru sarrerak izateko, ondorioz, produktuen prezioa beraien beharretara ahalbidetzeko, ez da oso garestia izango.

→ Eskuragarritasuna: produktuak gazteen ahoetara zabaltzeko web orri eta sare sozialen bidez komunikatuko gara bezeroekin, produktuak internetez eskuragarri izateko. Hala ere festa giroan oinarritutako ideia denez, festa nagusienetara zabalduko ditugun postuetan (furgoneta) izango dituzte produktuak eskuragarri, pertsonan ikus eta konpara ditzaten.

→ Erabilerraztasuna: Produktuak eguneroko bizitzan erabiltzen ditugun objetuekin erlazionatzen dira. Beraz, iadanik ezagutzen dugun erabilera simple eta erraza izango dute. Gainera, ez dute instrukzio zehatz eta zailik behar erabilera emateko.

→ Kalitatea: Prezio-kalitate erlazioa oso ona da. Geuk egingo ditugun erosketak, ondoren guk pertsonalizatu ahal izateko, konfiantzazko eta bertako enpresei egingo dizkiegu, akatsak sahiets daitezzen.